

NORA

EUSKAL HERRIA

34. zenbakia . 2010eko azaroa. 2.50 €

POSTA ZIGILUAK



6 BEGI HAITZETAN
• MENDIETAKO LEIHO
SORGINDUAK • **ARTE**
PRERROMANIKOA
• ELIZA ZAHARRENAK •
EUSKARA BIDAIDE •
IZTUETAREN DANTZA



BI NORABIDE
HOLTZARTE . PAGOETA



ZUZENDARITZA ETA ERREDAKZIOA

Javier Pascual
sua@sua-edizioak.com
Hektor Ortega
nora@nora-aldizkaria.info
Tel. 94 416 94 30. Fax. 94 416 69 76.
Epalza kalea 8, 4. 48007 Bilbo.

KOORDINAZIOA

Jesús M. Pérez Azaceta
jmperez@nora-aldizkaria.info

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Aurkene Etxebarria

ADMINISTRAZIOA

Ane Robles

leke@nora-aldizkaria.info

BANAKETA

ETXERAINO

Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain

Tel. 943 30 43 41. Fax. 943 59 01 72

etxeraino@etxeraino.net

HARPIDETZAK

IRAGARRI

Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain

Tel. 943 30 35 54

harpidetza@nora-aldizkaria.info

PUBLIZITATEA

Zuzendari komertziala:

Bixen Larrañeta - publi@nora-aldizkaria.info

Publizitate arduraduna:

Jon Sarasola - publi@nora-aldizkaria.info

EUSKAL HERRIA ALDIZKARIA

Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain

Tel. 943 31 32 09. Fax. 943 31 31 29

Edizioa: BIHOTZ BEGIAK S.L. Gudarien etorbidea, z/g. 20140 Andoain

Inprimaketa: Leitzaran

Lege Gordailua: SS-94-2008 - ISSN: 1888-413X

www.nora-aldizkaria.info



Minginean uzten duten zapore bori dute okerrena... Bildumatzaileek asko danzkate, eta posta elektronikoeke batere ez... Karta batzuk batere gabe iristen dira, eta horiek izaten dira puskatu eta zuzenean paperaren ontzira doazanak... Beste karta batzuk gainezka eta lau posta etxetako zigiluekin iristen dira, eta horiek dira maiteenak.... Lehen jaso egiten ziren seiluak. Ura irakin, eta lurrinaren gainean jartzen zen karta, edo bustitako belaki bat pasatzen zitzaion; altxa, eta jaso egiten ziren, berriaz erabiltzeko, edo baita gauza jakin batzuk ordaintzeko ere. Lehen seiluek zerbait balio bazuten, orain deus askorik ez. Batere gabe ere biziko ginateteke, seguru asko. Baina oporretara joan eta, postal bat bidaltzeko, zenbat ez dira seiluen atzetik ibili, eskuratu ezinik ernegatuta? Zenbat postal ez dira iritsi etxera bidaiariak baino geroago, seilurik garai ez aurkitzeagatik? Zenbat eta urrunago, orduan eta maiteago seiluak: behar izaten diren arte ez da konturatzen bat, zenbat balio duten.

Mikel Pernarena



Azaleko argazkia: Eusko Jaurlaritzaren hegazkin bidezko postarako azala. 1937.



04 BIHOTZ BEGIETAN

Bardeak (Nafarroa). ▶ EGILEA: RAUL ESTEBAN.

06 EUSKARA BIDAIDE

Gurera kultur-abangardiak berandu iritsi izan diren arren, Europako lehenengo folkloristetako bat Zaldibian jaio eta bere lanak euskaraz idatzi zituen. Juan Ignazio Iztueta dugu, dantza maisua. ▶ TESTUA: ALBERTO BARANDIARAN.

08 POSTA ZIGILUAK

XIX. mendearen erdialdean agertu ziren lehenengoz posta zigiluak Euskal Herrian. Arretaz arakatu ditugu, ea euskal paisaiak eta herritarak ageri diren, noiz eta non. ▶ TESTUA: JUAN ANTONIO SAEZ GARCIA.

20 6 HAITZ BEGI

Mendietako zuloei ate, begi edo leiho esan izan zaie. Askok dira gure bazterretan eta paraje magikotzat ditugu, behiala jentil edo deabruak egin zituztelakoan. Hona hemen sorta eder bat. ▶ TESTUA ETA ARGAZKIAK: ALBERTO MURO.

26 ELIZA PRERROMANIKOAK

Oso arrasto gutxi laga bazuten ere, kobazuloetatik kanpoko lehenengo elizak, Euskal Herrian, prerromanikoak izan ziren. Baseliza apal eta, gaur egun, bakar- tiak dira, benetako altxorak. ▶ TESTUA: ASIER AGIRRESAROB. ILUSTRAZIOAK: TREKU.

30 2 NORABIDE

Pagoeta eta Holtzarte. ▶ EGILEAK: MIKEL ARRIZABALAGA ETA SUSTRAI COLINA.



*Euskal Herria
eta*

POSTA ZIGILUAK

ta JUAN ANTONIO SÁEZ GARCÍA



XIX. mendearen erdia jo orduko beldu ziren zigiluak Euskal Herrira. Egun, obiturak zeharo eraldatu ondoren, 160 urteotako historiaren eta gure herriaren gaineko ikuspegi laburbiltzaile bikainak dira.

Zigiluak

Zigilua izatez inprimaturiko paper txikia baino ez da, ordainketa egin izanaren fedea ematen duena, eta haren truke posta administrazioak zerbitzu jakin bat egiteko konpromisoa hartzen du bere gain. Ingalaterran hasi ziren zigiluak lehenengoz plazaratzen, 1840. urtean, haien erabilera arin-arin zabaldu zelarik mundu osoan barrena. Gomadun paper-orrietan inprimatzen dituzte zigiluak eta, zaharrenak izan ezik, elkarren artean zulo txikiz banatzen dira, eskuz erraz-erraz moztu ahal izateko. Beraz, koskadunak dira.

Zigiluak frankeatzeko ohitura gainbehera etorri da azken urteotan eta, gaur egun, filatelia merkatua asetzera bideratuta daude, gehienbat. Gainera, jendar-tearen ohitura aldaketak ere zigiluzale edo filatelia-zaleen kopurua nabarmen murriztu du.

Euskal Herriari dago-kionez, lehenengo zigiluak



Euskal Herrian karlistek kaleraturiko zigiluak (1873-74). Urdina izan zen lehenengoa eta Baionan inprimatu zuten.

1849an heldu ziren Ipar Euskal Herrira eta hurrengo urtean mugaz bestalderara (1). Zigiluek, lehenengo urteetan Estaturburuen aurpegiak, zifrak edo mitologiako pertsonaiak erakutsi zituzten. Beraz, ez zekarten 'euskal'-tzat jo dezakegun gairik.

Karlistaldietako zigiluak (1873-1876)

Karlos VII erregearen armadak kontrolatutako lurraldeetan posta-trukatze beharra ikusita, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioak zerbitzua antolatu zuten 1873an. Herrialde bakoitzak bere posta-zerbitzua eratu zuen, posta-trukatze lekuak (euren artean eta atzerriarekin) izendatuz. Erreal batean ezarri zuten posta-tarifa eta ordainketa hori egiteko zigiluak baliatu zituzten.



Hego Euskal Herrian 1850an agertu zen lehenengo seilua.

Tolosako gainkargak

Gainkarga esaten zaio fabrikatik irten eta gero zigilu bati beste testu edo irudi bat gainean ezarzteari. Gipuzkoako Tolosan gainkarga bat egin zuten Espainiako II. Errepublikak aldarrikatu eta berehala, Alfonso XIII erregearen aurpegidun zigiluetako paper-orriak erregimen berriko zigilu bihurtzeko asmoz. Horretarako, *República* hitza erantsi zioten, edo bestela, frigiari txanoa edo svastika, gorritz nahiz beltzez (3). Zigilu horiek frankeorako onartu zituzten 1931ko apirilaren 21 eta 25a bitartean. Antzera jokatu zuten beste leku batzuetan ere (Madril, Bartzelona, Valentzia eta Almeria).

Lehenengo 'euskal zigiluzat' jo genezakeena Baionan inprimatu zuten, tinda urdinez. Karlos VII erregearen aurpegia dakar, ezkerretara begira. Bigarren zigilu karlista, more kolorekoa eta balio berekoa, 1874koa da eta bertan Karlos VII eskuinetara so ageri da. Hurrengo urtean tarifa bi ezarri zituzten, bidalketa herrialdearen barrurako ala kanporako izan. Horregatik, zigilu bi sortu zituzten: 50 zentimokoa, berdea, eta erreal batekoa, marroia (2).



Tolosako gainkargak. Alfonso XIII erregearen seiluetan 'República' berba ezarri zuten.



Gasteizen inprimatu zen seilu honetan Franco elea 54 bider ageri da.



Xabierko gaztelua 1936ko zigilu batean. Francoren aldekoek inprimatu zuten, Zaragozan.

Oroitzapenezko zigiluen agerketa

xx. mendeko bigarren hamarkadan, zigiluak oroitzapenezkoak izaten hasi ziren. Zigilu batean agertutako artean Euskal Herriari loturiko lehenengo pertsonaia Santiago Ramon y Cajal nobel sariduna izan zen (1934), jaiotzez Petillakoa, Aragoiko lurretan dagoen nafar barrendegikoa.

1936ko gerra

Gerra zibilean errealitate politiko bi eta haiegi atxikitako posta-zerbitzuak izan ziren: Errepublikaren alde eta matxinatutako militarrek kontrolpean zeukaten lurraldea. Madril gerraren azken unean bereganatu zuten erreboltaiek eta, horren ondorioz, Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionala bertan zegoenez, Errepublikaren zigiluek fabrikatze arau arruntak bete zituzten, batera arazorik gabe.

Matxinatuen agintariak, ostera, enpresa pribatuei eman zieten haien zigiluak inprimatzeko ardura. Horieta bat Tolosako Laborde y Labayen inprimategia izan zen. Bertatik (*Fábrica del Timbre e Imprenta Nacional* izena erabiliz) batez ere paper ofiziala, dozena bat zigilutako probak eta posta-txartelak atera ziren, azken horiek Gregorio Hombrados tolosar margolariak diseinatutako Cervantesen zigilurekin. Zaragozan (Litografía M. Portabella)

Xabierko gazteluaren zigilua estanpatu zuten 1936ko irailean, *Junta de Defensa Nacional* batzordearen aginduz (4).

Aukeraturitako artean bazen euskal enpresa gehiago; adibidez, Gasteizko *Fournier*. Bertan, zigilu-sorta batzuk inprimatu zituzten:

Jubileu-urtea

(1937), Fernando “kato-likoa” (1938) eta Erre- gimen berriko bitxia eta adierazgarriena, Mugimendu Nazio- nalaren (Movimiento Nacional) bigarren urteurrenean argitaraturik, Juan Cabanas donostiar falangistaren diseinuaren arabera: esku ahurrean uztarrria eta geziak (besoa goian egiten zen agur falangista irudikatuz), garaipenaren ereinotza, Franco hitza 54 bider errepikaturik eta honako esaldi hau: 18 julio España libre (uztailak 18, Espainia aske). Zigilu horiek 1938ko uztailearen 17 eta 19a bitartean erabili zituzten (5).



8 Francoren aldeko gainkargak euskal herri eta hirietan.



9 Bilboko Carlos Haya pilotua. Militarren alde borrokatu zen.

Eusko Jaurlaritzaren proba bat, hamazortzi zigiluduna. F. Aracili hartutakoa.



6



Eusko Jaurlaritzak gutunazal berezia ateratu zuen aire bidezko postarako. Zigilu moduko bat inprimaturik zekarren.

Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak ez zeukan zigilurik argitaratzeko eskuduntzarik, baina egon badago garai hartan egindako proba baten paper-orria, hamazortzi zigiluduna. Kataluniako *Oliva de Vilanova* inprentak egin zuen eta bertan euskal pertsonaia historikoak (San Ignazio, Elkano, Iparragirre, San Frantzisko Xabier, Francisco de Vitoria), gudari eta buruzagi abertzaleak (Saseta, Aitzol, Fortunato Agirre, José Antonio Agirre, Irujo), monumentuak, euskal paisaiak eta mapa bat tarteakatu zituzten. Testuak euskara hutsez daude. Bitxikeria moduan esan dezagun pezeta berba beharrean ‘laurreko’ hitza ageri dela, garai hartako ohitura garbizaleari jarraituz (6).

Eusko Jaurlaritzak aire bidezko postarako gutunazala argitaratu zuen. Molaren armadak Bilbo eraso bitartean hegazkinen iruten ziren gutun guztiek derrigor baliatu behar zuten. Azalean zigilu moduko bat zeukan inprimaturik, hegazkina airean eta ikurrina ageri zirela. Ez zekarren preziorik, baina gutunazal horiek aleko 0,50 pezetatan saltzen ziren (7).

Espainiako zigilu ‘aberkoiak’

‘Sellos patrióticos’ –zigilu aberkoiak– esaten diote erregimen militar berriaren aldeko lelo eta esaldiak gainkarga gisa erantsita dituen zigilu sortari, Francoren osteez lurralde berriak bereganatu ahala edo urteurren garrantzitsuen itzalean argitaratu emandakoak. Horrelako gainkargak ondoko herri eta hiri hauetan ezarri zituzten: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Durango, Arrasate, Iruñea eta Tafalla. Gehien erabilitako leloak, aldiz, ‘Viva España’, ‘Saludo a Franco’ eta karlisten ‘Dios, Patria y Rey’ izan ziren (8).

Euskal gaiak Espainiako zigiluetan (1939-2010)

Francisco Francoren diktaduraren garaian, Euskal Herria lantzean behin agertu zen

7



Espainiako zigiluetan.

Batzuetan, erregimen berari lotutakoetan, Carlos Haya bilbotar hegazkin-pilotua kasu, aire-gatazka batean Errepublikaren hegazkin baten kontra borrokan hildakoa (9).

Oihartzun handia erdietsi zuten lekuan lekuko jantzi eta armarriei eskainitako sortek, xx. mendeko 60. eta 70. hamarkadetan argitaratuak. Bitxia kontua, armarririk hiriburuetakoak diren arren,

Herrialdeetako jantzi tipikoak eta hiriburuetako armarririk.

10



Pilota sarritan ageri da Espainia nahiz Frantziako zigiluetan. Ondoan, pala, esku eta zesta-punta.

11

zigiluak herrialde bakoitzeko izena baitakar (10). 2008 urtean euskal aztarna nabarmena izan zen ‘joko eta kirol tradizionalak’ zigilu sortan. Multzo horretan zigilu bakoitza preziorik ageri ez duen bineta banari atxikia dago, zigiluaren irudia osatuz: harri-jasotzaileak, palankariak, estropadak eta esku-pilota. Azken horrek pilotari eskainitakoen multzoa handitu zuen, aurretik ere zesta-punta (1960 eta 1964), pala (1960), eta esku-pilota bera (1986, Gasteizko Munduko Txapelketa zela eta) (11) islatu zituen. 2009an, herri dantzen gaineko beste sorta

Euskara tinbretan

Gutxitan agertu izan da euskara posta-zigiluetan: 1956ko abaleginak alde batera utzita, lehenengoz 1979ko zigilu batean sartu zuten, Gernikako estatutuaren onarpenaren oroitzapenezkoan alegia. ‘Euskadiko Autonomi Estatutua’ irakurtzen dugu bertan. Hurrengo urteetan berrien izendapena egiteko izen ofiziala erabili denez, kasu batzuetan euskaraz agertu zen, hala nola 1990ean Getxon egindako munduko ziklo-kros txapelketaren oroitzapenezko zigiluan.

Estampilla izeneko frankeo motan (zigiluaren alternatiba gisa 1989 eta 2006 bitartean Espainian era-

bilitako zeinua) behin erabili zuten euskara, euskal gaiak eskainitako lehenengo sortan (2002). Horietako batean, ‘Posta Arkitektura. Donostia-San Sebastián’ ageri da.

Espainiako hizkuntza ofizialen erabilera sustatzeko asmoz, ‘zigilu eleaniztunak’ kanpaina egin zen mende berriko lehenengo hamarkadaren erdialdean. Correos posta zerbitzuak bainbat hizkuntzatan idatzitako zigilu batzuk kaleratu zituen, besteak beste, 2005eko gabonetakoa.





Migel Indurainen omenezko zigilu biribila.

13

batek aurrekuari egin zion leku. Futbola, nola ez, zigiluetan ere ageri da, besteak beste, Athletic Club (1998), Real Unión (2002) eta Real Sociedad (2009) taldeen mendeurrenak zirela medio (12). Horietako batzuek, zigiluaz gain, gutunazala eta posta-txartela ere ekarri zuten.

Berriagoa da 1997an argitaratutako zigilua, gol jakin bati eskaini baitzioten: Telmo Zarrak 1950eko futbol munduko txapelketan Espainiako selekzioarekin Ingalaterrari sartutakoa. Montrealgo



12



Athletic eta Errealaren mendeurrenei eskainitako seiluak.



Zesta-punta 1964ko espainiar zigilu batean.

olinpiadetako zigiluak ere (1976) Orioko trainerua irudikatu zuen. Eta ezin ahaztu Migel Indurain. Bizirik dauden pertsonak ezin dutenez zigiluetan ageri –estatu-buruek eta errege-familiak izan ezik–, Atarrabiako txirrindulariaren omenez orri-blokea argitaratu zuten; horrela, haren irudia orrialdean ageri da baina zigiluan –biribila, gutxitan ikusten dena–, ordea, ez (13).

Arteari lotutako zigiluen artean, Ignazio Zuloaga margolariarenak nabarmentzen dira. Haren autorretratuaren zigilua (1947) hegazkin bidezko postarako baliatu zuten eta atzealdean zenbakiak ageri ziren. (14). 1971n zazpi aleko beste sorta bat eskaini zioten, tartean direla, autorretratuaz gain, haren osaba Daniel eta Pablo Uranga arabar margolaria.

Jesus Mari Lazkano bergararraren margolanak ere agertu ziren (1991) Madril Europako kultur hiriburua zela-eta. Ospakizun horretara bideraturiko 5 pezetako gaintasa ezarri zioten, zigiluetako ageriko balioaren parte gisa. Picassoren 'Guernica' margolan ospetsua ere tamaina handian (80x55mm) argitaratu zuten (1981), jatorrizkoak ere neurri handiak ditu eta (15). 1990eko gabonak Jose Antonio Sistiaga donostiarraren margolan birekin irudikatu zituzten.

Zazpigarren artea ere ageri izan da, Karrantzako Victor Ericeren 'El Sur' filmari buruzko zigiluaren bidez, esaterako.

Musikak, ordea, ale gehiago laga ditu. Horra hor, bestela,

15



Pablo Picassoren 'Guernica', tamaina handiko zigilu batean ageri zen.



Ondare artistikoaren atalean, besteak beste, ondoko hauek ageri izan dira: Oñatiko unibertsitatea (1973), Leireko monasterioa (1974), Gasteizko Portalea (1970), Erriberriko (1966) eta Butroeko gazteluak (1966), Zangozako (1968), Eunateko (1971) eta Lekeitioko (1970) elizak, Gasteizko katedraleko beirateak (2002) eta Portugaleteko zubia (2007) (17).

17

Iparragirre (1981), Pablo Sarasate (1977) eta Hilarion Eslava (1978) nafarrak eta Guridi arabar musikagileari eskainitako zigilu bikoia (diptikoa), batean konpositorea eta bestean 'El caserío' (baserria) zarzuelaren pasarte bat dakarrela (1983) (16). Literaturari dagokionez, Pío Baroja (1978 eta 2006) edo Migel Unamuno (1970) idazleak estanpatu izan dituzte.

Erljio kutsuko gaiak ere ez dira falta. Besteak beste, Begoñako Andra Mari dakarren zigilua 1954ko Andre Mariaren urteari buruzko sorta batean argitaratu zuten, bederatzi Ama Birjina gehiagorekin batera. Loiolako San Ignazio (1955 eta 1991), Rodrigo Ximenez de Rada

nafar gotzaina (1970) eta Jesusen Bihotzeko Maria Josefa gasteiztar mojaren kanonizazioa –berau izan zen Jesusen zerbitzariak ordenako sortzailea– (19) ere badira, Xacobeo 99ko oroitzapenezko lau zigiluetatik bitan Iruñeko Magdalena zubia eta Zangozako elizako portada azaldu zirela ahaztu gabe.

Jesus Guridi eta 'El caserío' lanaren omenezko bikoia.

16



Zuloaga pintorearen autorretratu, eta atzealdeko zenbakia (1947).

14



Itsasgizon eta kolonizatzaileen artean, ohiko Elkano, Legazpi, Urdaneta eta Txurrukaz gain, Blas Lezokoa pasaitar marinelari eskainitako zigilu biak nabarmenduko ditugu (1961). Ezker begia keinuka ari dela dirudien arren, haren gerrazaurietako bat baino ez da; ez zen hura bakarria izan, beso eta zango bana ere galdu baitzituen (18).



Ezin bestela izan, erlijioa dela eta Euskal Herria behin baino gehiagotan ageri da zigiluetan.



18



Sortze edo jaiotze urteurrenei dagokienez, Donostia (1963), Gernika (1966) eta Iruñeko orfeoia (1992); Bilboko ingeniarietza eskola, Portugaleteko zubia ageri delarik (1997); Balmasedaren zortzigarren mendeurrena, hango zubi zaharra eta guzti (1999), Bilboren zazpigarrena, irudi gisa Guggenheim museoa dakarrela...(20).

Bitxikeria moduan, aipa dezagun 1970eko zigilu bat, ilustraziorako Juan Alçega hondarribiar jostunak 1580an argitaratutako liburuaren azala baitakar. Liburu hura zen *“Libro de Geo-*



Hiri, gertakizun eta elkarten mendeurrenak sarritan ageri izan dira Espainiako zigiluetan (20).

20

metría, práctica y traça... de lo tocante al officio de sastrer...

Jai arlo oparoan Iruñeko entzierroa (1960 eta 1984), Gasteizko Andre Mari Zuriaren jaiak (2004) eta Irungo San Martzialak (2007) bildu ditugu (21).

Ikurrina, Euskal Autonomia Erkidegoaren mapa baten alboan, 2009ko zigilu batean ageri da. Zigilu horrek ez dauka ageriko balio gisa kopururik, A letra baizik. Horrek esan nahi zuen gehienez 20 gramoko gutuna frankeatzeko balio zuela,

21



Iruñeko Zitadelaren planoak 1988ko zigilu batean.



Ikurrina EAEko maparen ondoan, 2009ko zigilu batean.

22

urteurrenak

operazio horrek eurotan balio duena balio duela ere (22).

Urtero, Espainiako Correos posta zerbitzuak orri-blokea argitaratzen du Espainiako Erakusketak Filateliko Nazionala (Exfilna) dela-eta. Ilustrazioa erakusketa egin den hiriarri loturik egoten da. Euskal Herrian hiru egin dira: Iruñea (1988), Gasteiz (1996) eta Irun (2009) (23).

Euskal emakumeak gutxitan ekarri dituzte zigiluetara. Lehen aipatu Maria Josefa gasteiztar lekaimeaz gain, Maria de Maeztu pedagogo eta herrialdeetako jantzien zigiluetako modeloak besterik ez.



jaiak

21

Jai arlo oparoan Iruñeko entzierroa (1960 eta 1984), Gasteizko Andre Mari Zuriaren jaiak (2004) eta Irungo San Martzialak (2007) bildu ditugu.



25

Manuel Iradier gasteiztarra Espainiaren menpeko Gineako seilu batean (1950).



24

Biarritzeko Ama Birjinaren Haitza, Frantziako zigilu batean (1976).

Larrun mendia ageri direla (1997), eta “maison basque” –baserria– (2003).

xvi. mendearen amaieratik aurrera Nafarroako errege-erreginek Frantziako koroa ere bazeukatenez, ‘nafar’ zigiluen kopurua nabarmen handitu da. Besteak beste, Henri III Nafarrokoa eta IV Frantziakoa (1943, 1969 y 1998), Margarita Angulemakoa, Nafarroako erregina (1992), Luis III Nafarroakoa y XIV Frantziakoa (1944, 1962, 1968, 1970).

Kolonia izandako herriak

Manuel Iradier arabarra ‘Guinea Española’ren hiru zigilutan (1950 eta 1955) ageri da, berau izan baitzen lurralde horretako kolonizazioa sustatu zuena xix. mendearen amaieran (25). Harrigarriagoak egin zaizkigu Joan Sebastian Elkano (1973) eta “Victoria” bere ontzia (1973 eta 1979), *Terres Australes et Antarctiques Françaises* –Frantses lurralde austral eta antartikoak– delakoak argitara emandako zigiluetan. Indiako ozeanoko Amsterdam uhartea deskubritu

¿Eta Frantziako errepublikak?

Frantziak oso zigilu gutxi kaleratu ditu Ipar Euskal Herria gaitzat harturik. Beharbada txikia eta populazio gutxiakoa delako. Gaskonia eta Baxe Nafarroako armarrak (1953 eta 1954), euskal pilota (1956 eta 2005), Ziburuko Maurice Ravel musikaria (1956), Biarritzeko kostaldea (1976) (24), euskal kortsarioak, Zokoa gotorlekua eta

Zigiluen balioa

Espainian 1850 eta 2010 urte bitartean argitara emandako 4.600 zigiluetatik (gutxi gorabehera eta kolonietakoak eta bestelako franko zeinuak kontuan hartu gabe), gutxi batzuek besterik ez dute 10.000 eta 20.000 euro bitarteko kotizazioa. %70, aldiz, 0,25 euro inguruan dabilta. Aldera batzuek, akatsek, horzaturik gabeko zigiluek, launakako blokeek, gorengo txartelek (carte maximum edo tarjeta máxima), lehenengo eguneko azalek... bere balioa handi dezakete.

Gainera, katalogoetako prezioak –txiki-zakako salmentakoak dira eta, oro har, gehiegizkoak– ale ‘normalei’ dagozkie; beraz, balioa aldatuko da zigilua itsasteko kolaren arrastorik balego, horzaturaren kalitatearen arabera, jatorrizko goma edo zigilu-marka eduki ala ez...

Laburbilduz: aparteko bilduma batean, ale aukeratuena edo garrantzi handiko zigilu-sorta osoen salmentek baka-rrik eragin dezakete etekin ekonomikorik, betiere operazio hori behar den bidetik eramanez gero.



Saint Pierre eta Mikelune uharteetako zigiluak: pilotariak (1991), Cap aux Basques (1997) eta pilotalekuaren mendeurrena (2006). Bertakoen euskal jatorria agerikoa da.

26

omen zuen getariarrak 1522an. Beste getariar bat Frantziako Polinesiaren zigiluetan ageri da: Domingo Bonetxea, Tahitin nabigatzaile ibili zena. Berdin harritu gaituzte Saint Pierre eta Mikelunek (Ternua ondoko frantses uharteak) euskal pilotari buruzkoak (1991), hango frontoiaren mendeurrenaren gainekoak (2006) eta ‘cap aux basques’ toponimoari eskainitako zigiluak (1997); azken hori zigilu bik eta elkarren arteko binetek osatzen dute. Euskal jatorria ez dute saltzeko (26).

Bestelakoak

Atzerriko zigiluen artean ugariak Loiolako Ignaziorenak dira (Kolonia, Txile, Panama, Paraguai, Venezuela, Vatikanoko, Filipinak, Zambia, Malta, Brasil, Uruguai, Italia, Macau).

Itsasgizonei dagokienez, Elkano, Legazpi eta Urdaneta ageri izan dira Frantzia, Filipinak, Mexiko, Cook Uharteak, Norfolk Uhartea eta Qatarreko zigiluetan. Askoz era apalagoan beste batzuek ere islatu izan dituzte zigiluetan, hala nola

Irala konkistatzailea (Paraguai), Zuloaga pintorea (Argentina eta Kuba) (27) eta Pedro Sanjuan donostiar musikaria (Kuba). Aho bete hartz utzi gaitu 2004an Ekuatore Gineak ateratako zigilua, Platako farola (Donostia) irudikatzen duena (28). Azalpen erraza dauka, ordea: Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika dugu Gineako zigiluen inprimatzailea. Azkenik, Beasaingo CAF enpresak egindako tren batzuek Ginea Bissauko zigiluetan agertu ziren 1989an.



28

Platako farola (Donostia) dotore Ekuatore Gineako zigilu honetan.



27

Zuloagaren margolanak argitaratu ditu Kubako posta zerbitzuak.